


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**HAUR HEZKUNTZAKO GRADU AMAIERAKO LANA**

**2019/2020**

**KONTALARITZAREN ERAGINA  
HEZKUNTZAN, IPUIN KONTALARIEN  
ESKUTIK**

**Virginia Imaz eta Pello Añorgaren testigantzetan  
oinarritua**

**Egilea: Amaia Elizagoien Varela**

**Zuzendaria: Xabier Etxaniz Erle**

**Gasteizen, 2020ko maiatzaren 28a**

Gaur egun ipuin kontaketek garrantzia handia dute hurrei zuzendutako eskaintza kulturallean. Lan honetan, ipuinek duten balioaz eta Euskal Herriko haurren komunitatean ipuinek duten leku, erabilera eta prestigioaz mintzatuko gara. Horretarako, ipuin kontalariak diren Virginia Imaz eta Pello Añorgaren testigantzetan oinarrituko gara. Marko teorikorako gaiaren inguruan egin izan diren lanak jaso eta aztertuko ditugu. Lan honen bitartez, gure helburua ekarpen txiki bat egitea da, ahozkotetasunaren inguruko ikerketari. Ipuinek haurren komunitatean eta batez ere hezkuntzan duten lekua ikusi, dituzten gabeziez ohartarazi eta ipuinen balioa argitara eramateko.

Hitz gakoak: ipuina, ipuinen balioa, kontalaritza, kontalaritza eta hezkuntza, kontalaritza gaur egun, Virginia Imaz, Pello Añorga.

Hoy en día los cuentacuentos tienen una gran importancia en las actividades dirigidas a los niños. En este trabajo hablaremos del valor que tienen los cuentos y del sitio que ocupan, el uso que se les da y el prestigio que tienen en la comunidad infantil del País Vasco. Para eso, contaremos con los testimonios de Virginia Imaz y Pello Añorga. En cuanto al marco teórico, recogeremos y analizaremos los trabajos previos que se han publicado sobre el tema. Mediante este trabajo, nuestro objetivo es hacer una pequeña aportación al estudio de la oralidad: por una parte, queremos reflejar el sitio que tienen los cuentos dentro de la comunidad infantil y, sobre todo, en educación; por otra parte, queremos dar luz al valor de los cuentos.

Palabras clave: cuento, valor de los cuentos, cuentacuentos, cuenta cuentos y educación, los cuentacuentos hoy en día, Virginia Imaz, Pello Añorga.

# AURKIBIDEA

1.	Sarrera .....	3
2.	Marko teorikoa .....	4
2.1	Ipuina eta bere balioa .....	4
2.2	Kontalaritza .....	5
2.3	Kontalaritza berria .....	6
2.3.1	Aurrekariak eta garapena.....	6
2.3.2	Kontalaritza berria Euskal Herrian.....	7
2.3.2.1	Hastapenak .....	7
2.3.2.2	Kontalaritza, gaur egun .....	8
2.4	Kontalaritza eta hezkuntza .....	8
2.4.1	Kontalaritzaren eta hezkuntzaren arteko harremana.....	8
2.4.2	Kontalaritzak hezkuntzari eskaintzen dizkion onurak .....	9
2.4.3	Hezkuntzak kontalaritzarekiko dituen ikuspegia eta jarrera .....	10
2.4.4	Egoera horren aurrean ikertzaileek proposatzen dutena .....	11
3.	Metodologia eta corpusa.....	12
3.1	Metodologia.....	12
3.2	Corpusa.....	13
3.3	Grabazioa.....	13
3.4	Datu bilketa .....	13
4.	Datuak .....	14
4.1	Ipuinen balioa .....	14
4.1.1	Pello Añorgak ipuinen balioaz .....	14
4.1.2	Virginia Imazek ipuinen balioaz .....	15
4.2	Añorgak eta Imazek kontalaritzaz eta hezkuntzaz .....	17
4.2.1	Kontalaritza berriaren hastapenak Hego Euskal Herrian .....	17
4.2.2	Kontalaritzak haurren komunitatean bizi duen egoera.....	19
5.	Ondorioak .....	23
5.1	Eztabaida .....	23
5.2	Azken gogoetak.....	26
6.	Bibliografia.....	30
7.	Eranskinak.....	32
1.	Eranskina: Galdetegia .....	32
2.	Eranskina: Minuteroa .....	34

## 1. Sarrera

Kontalaritzak hizkuntzak adina urte dituela erran daiteke. Gure arbasoetatik jaso dugun praktika da eta berekin mundu osoko eta garai askotariko istorioak garraiatu ditu. Aspaldian etxeko sutondoaren bueltan kontatzen ziren ipuinak, herri nomadek alde batetik bestera eramaten zituzten eta gizartearen entretenimenduaren alderdi esanguratsu bat osatzen zuten. Gaur egun berriz, batez ere, haurrentzako zuzenduta dagoen praktika bihurtu da eta hezkuntzarekin harreman estua dauka.

Gradu amaierako lan honen bitartez (2019/2020), gure helburua kontalariekin mintzatu eta kontalaritza lehenengo pertsonan bizi dutenen panoramika jasotzea da. Haiek baitira ofizioa hoberen ezagutzen dutenak. Gure kasuan, bi kontalariren erranetan zentratuko gara: Virginia Imaz eta Pello Añorgaren erranetan hain zuzen ere. Biek ere ofizioan 40 urte inguru eramateaz gain, hezkuntzarekin modu batean edo bestean lotura estua izan dutelako.

Maiz itzalean gelditzen den lanari, kontalariarenari, kasu egin nahi diogu eta dituen onurak azpimarratzeaz gain bizi duen egoeraren erretratu bat jaso nahi dugu. Horretarako gure lanak alderdi hauek izango ditu:

1. Marko teorikoa: Atal honetan hurbilpen teoriko bat egingo dugu, ipuina eta bere balioa, kontalaritza, kontalaritza berria: aurrekariak eta garapena, eta kontalaritza eta hezkuntzaren inguruan.
2. Metodologia eta corpusa: Beste atal honetan, berriz, mintzatuko gara datuak biltzeko erabili ditugun teknikez eta gure hipotesiak ezagutaraziko ditugu.
3. Datuak: Gure intereseko gaiaren inguruan kontalariek errandakoa jasoko dugu.
4. Ondorioak: Hipotesiak bete diren edo ez plazaratuko dugu. Horrez gain, lana egin ondotik etorkizunean egin daitezkeen ikerketez mintzatuko gara.

## 2. Marko teorikoa

Marko teorikoari dagokionez, landuko ditugun termino eta alderdi teorikoak ikertzaileen lanetan oinarrituak daude: ipuinari, kontalaritzari, hezkuntzari eta hauen artean dagoen harremanari egiten diete erreferentzia. Hasi gaitezen, beraz, oinarritik; kasu honetan, ipuinetik.

### 2.1 Ipuina eta bere balioa

Asko izan dira azken urteetan ipuinaren eta bere balioaren inguruan mintzatu direnak: ikertzaileak, kontalariak, irakasleak, filosofoak, eta abar. Zumthor-ek (1991) ipuinaren hirurogeitik gora definizio daudela gogorarazten digu, objektu heterogeneo eta aldagarria dela erakutsiz. Aditu zenbaiten ustez, gertakizun sinpleak dituen kontatera laburra da ipuina (Jimenez, Gomez, Aguado eta Ballesteros, 2001). Baina, hala izanik ere, hori baino gehiago da: ipuina lehenengo manifestu inteligentea da haurrentzat, errebelazio bat, esnatze existenzial kategoriko bat (Fortún, 2008).

Definizioak definizio, aipatuko ditugun ikerlari guztiek bat egiten dute erratean ipuinak balioa eta funtzioa dituela. Elorzaren aburuz, ipuinak haurrari mundua zentzu zabal batean ezagutzen laguntzen dio hizkuntzaren bitartez, eta horrek ipuinari balio hezitzailea ematen dio (Elorza, 2009a:4).

Badaude ikertzaileak haur terminoa erabili baino, nahiago dutenak adin tarte zehatzez solastu. Fortúnek dio, adibidez, bi urtetatik hasi eta bederatzire arte, ipuinak haurraren mundu fantastikoa elikatzen duela, imajinazioa aberasten. Horregatik, garrantzitsua da alderdi horri kasu egitea, alde batera utziz gero, desitxuratuko litzatekeelako, haurraren imajinarioan ondorio negatiboak ekarriz (Fortún, 2008:20).

Ipuinak pozbide gisa ikusten dituztenak ere topatu ditugu, haurraren ezagutza modua eta haien barne bizitza aberasten dutelako, sormena erraztuz. Ikertzaileek azpimarratzen dute norbere kultura ezagutu eta mundua ulertzeko ezinbesteko tresna dela ipuina (Jimenez, Gomez, Aguado eta Ballesteros, 2001).

Ezin dugu ahaztu urteetan zehar ipuinek garrantzia handia eduki dutela gure etxeetan, eta, beraz, baita kontalaritzak ere (ahozkoa izan baita, duela gutxi arte, ipuinaren transmisioa).

Rainer Maria Rilke poeta ezagunaren esaldi batetik abiatuz, Fortúnek (2008:23) dio haur orok, helduak bezala, zenbait esperientzia aurreztu nahi dituela, besteak nola bizi izan diren jakin, haien garaipen eta porroten berri izan, gauzak nola lortzen diren

ikusi eta baita nola galtzen diren ere; baina, hau guztia, eragin zuzenik eduki edo jasan gabe. Horregatik, berdin du pertsonaiak neurrigabeak edo istorioak fantastikoak diren; alderantziz, modu honetan zentzu gehiago hartzen dute, eta haurraren barne mundu neurrigabe eta fantastikotik hurbilago daude.

Maiz, ipuinaren balioa eta haurtzaroa bereizi ezinak direla dirudi. Ipuinak lehenengo aldiz helduaroan jasotzen baditugu, fosil zahar baten aurrean sentitu gaitzke. Aldiz, Fortúnek (2008) dioen bezala, haurtzaroan jaso gero, poesiaz betetzen gaituen iturri emankor bat bezala sentituko ditugu.

## 2.2 Kontalaritza

Transmisioari begira jartzen bagara, ipuinak, izateko, baliabide asko ditu. Ipuin kontaketa ari garenean, ahozko praktika batez ari gara, eta horrek berekin du transmisio egoeraz eta kanalaz pentsatzea. Kontaketaren hastapenak arras lotuak daude ipuin tradizionalen sorrerarekin; horregatik, ohikoa da adituek literaturaren oinarritzat hartu izana, nolabaiteko abiapuntutzat.

Are gehiago, askotan, ipuin tradizionalak eta kontalaritza eskutik doaz. Diaz de Gereñuren (2005:32) arabera, kontalaritza da “kontu edo ipuin bat jendaurre batean eta momentu jakin batean, bere burua kontalaritzat duen baten eskutik eta ahoz gauzatzen den hizkuntza”. Jendearekiko interakzioa funtsezkoa da, eta hainbat ikertzailek azpimarratzen du une horren garrantzia. García-Arriolak (2018:119), esaterako: “Ipuinak kontatzea da sentitzea, jolastea, dramatizatzea, besteak beste”. Alegia, kontaketa testuari bizia ematea esan nahi du, berez geldirik dagoena mugimenduan jartzea. Ipuinen bidez umeen arreta bereganatzen eta momentu batez haiek sorgintzen dituen praktika izango litzateke kontaketa, eta haurrek istorioez disfrutatzen duten bitartean gauza aunitz ikastea ahalbidetzen du.

Igerabidek (1993) dio, kontaketa helbururik badu, taldean egindako ahozko komunikazio estetikoaren burutzea dela. Beste modu batera erranda, adierazpen artistikoak landuz, eguneroko zirkuitu mugatutik dimentsio berriak zabaltzea.

Kontalaritzaz solastean, honen ezaugarri bereizgarrien inguruan ere egin dira zenbait aipamen. Bryantek (1984:13), adibidez, adierazten du kontaketa espontaneo dela hein handi batean, ez baitago testuari lotua, eta entzuleengan ikusitakoaren arabera ipuina moldatu baitaiteke.

Ezin dugu ahaztu kontaketa ezaugarri nabarmenetako bat dela “hemen eta orain”ari lotua egotea, behin ipuina kontatuta, haurrak ez duelako erreproduzitzeko

aukerarik (García-Arriola, 2018). Ezaugarri honek bete-betean eragiten dio komunikazio egiturari. Hau da, unekoari lotua egotearen eraginez, hiru elementu nagusitzen dira: istorioa bera, kontalaria eta entzuleak. Ongi aukeratutako istorioak, kontalari on batek kontatuta, umeen arreta lortzen du, baldin eta hiru elementuak harmonian badaude (Raines eta Isbell,2000).

## 2.3 Kontalaritza berria

### 2.3.1 Aurrekariak eta garapena

Orain kontalaritzaren ezaugarri orokorrak ezagutzen ditugula, hitz egin dezagun labur-labur honen historiaz. AEDAko (Espainiako kontalarien elkarte) webgunean aipatzen den bezala, jaso diren datuek argi uzten dute konta-praktikak balore handia izan duela antzinako gizarteetan, batez ere hizkuntza idatzia agertu aurretik. Kontalariak ezaugarri batzuk behar zituen: istorioak jaso, gorde eta erreproduzitzeko gaitasuna, hain zuzen ere. Ofizio honetara dedikatzen zirenak lekuan lekuko panoramikara egokitzen ziren: umorezko istorioak, gertakizun historikoak eta baloreei edo ikasketari lotutako ipuinak kontatzen zituzten, eta komunitatearen iruditegiari eta sentimenduei ekarpen zuzena egiten zieten. Kontaketa hauek normalean helduei zuzenduak egoten ziren; hala ere, haurrei zuzendutako saioak ere egoten ziren. Horren adibide dira Erdi aroko bardoak, Errenazimentuko gortesauak edo Versalleseko dama aristokratak. Gizartearen alfabetizazioarekin, ordea, ahozkotasanak behera egin zuen, eta kontalari horiek bizirauteko teknika berriak bilatu behar izan zituzten.

Antzinako kontaketaaren inguruan zenbait datu jaso diren arren, askoz gehiago dakigu kontalaritza berria deritzonaz. Europako kasuan, kontalaritza berria industria ondoko gizarteekin lotzen da, eta datuek mendebalde osoan zabaldu dela diote (Calamen-Griaule, 1991; Sanfilippo, 2007a; Hernandez, 2006; Garzón Cespedes, 1995; El Aedo, 2013).

Adituek diotenez, oraindik ere gutxi dakigu konta-praktika berri hauek historian zehar jasan duten bilakaeraz (Sanfilippo 2007b eta 2007c, Heiniger 2013). Edonola ere, esan daiteke kontalariaren figura egokituz joan dela errotik aldatu den industria ondoko gizartearen ezaugarri eta betebeharrak, eta horrela lortu duela jendaurrean jarraitzen duen figura bat izatea.

Kontalaritza berriaren sorrera 70eko hamarkadan kokatzen da. Hala ere, mugimendu hau ez zen bat-batekoa izan. Aurrekaritzat hartzen diren gertaerak mende hasieratik aurrera gertatu ziren: folklore bilketen hastapenak eta, batez ere, herri eskandinaviarretatik Europa osora zabaldu ziren eskolari lotutako konta-praktikak.

Herralde batzuetan praktika hauek lehenago etorri ziren. Fortunek (2008) dio, adibidez, Pariseko liburutegiek kontalari talde bat zeukatela 1939an. Urte batzuk lehenago edo geroago, antzeko eragileek abiarazi zuten mugimendua Europa guztian: bibliotekari, irakasle eta pedagogoek. Irakurzaletasuna sustatzea zuten helburu, eta liburutegi, aisialdi eta eskoletan *ipuinaren ordua* bezalako saioak antolatzen hasi ziren modu sistematikoan. Beti ere, helburu pedagogikoak zituzten gidari (Calame-Griaule, 1991).

Konta-praktika hauek ahozko tradizioetik jasotako kontakizunekin abiatu ziren, mitoa, elezaharra eta ipuin miresgarria bezalako genero kanonikoekin, hain zuzen (De La Salle et al., 1984). Baina, horrez gain, kontalaritza berriaren bilakaerak era guztietako gai eta kontakizunez osatutako errepertorioak eman ditu (Sanfilippo, 2007a; El Aedo, 2013).

Kontalaritza berriak ez ditu soilik ekartzen kontatzeko modu berri bat eta helburu pedagogiko bat; era berean, bidea ematen dio ikerketari. Esaterako, 70eko hamarkadaren bueltan, kontalari berrien lehen belaunaldiko Bruno De La Salle aitzindariak kontalaritza berriaren lehen eskola eratu zuen, baita formakuntza erregularrak eta ikerketa laborategiak martxan jarri ere (Briot, 2005).

## **2.3.2 Kontalaritza berria Euskal Herrian**

### **2.3.2.1 Hastapenak**

Euskal herrian kontalaritzak izan duen bilakaerak antzekotasun asko ditu Europakoarekin; beraz, gorabeheratsua izan da. Honek ere jatorrian helburu pedagogiko eta didaktikoak bazituen ere, gerora, ekinaren ekinez, bestelako helburu ludiko eta estetikoekin lotua agertu da jendaurrean kontatzea. Gaur egun, arte eszenikoen esparruko praktika artistiko bat dela aldarrikatzen da aunitzetan (Diaz de Gereñu, 2016).

Europa osoan mugimenduak antzeko noranzkoa eduki badu ere, konta-praktika berrien bilakaerak zerikusi handia du lekuan lekuko kultur sistemetan arte eszenikoek, eta, oro har, eliteko kulturak duten egoerarekin (Bordieu, 2003). Euskal Herriko kasuan, geurea hizkuntza gutxitua izaki, irakurzaletasuna sustatzeko ekimena izateaz gain, bertako kultura biziberritzeko nahiz hizkuntzaren normalizaziorako elementu garrantzitsua izan da kontalaritza (Irusta, 2004; Heiniger, 2013; Amestoy, 2012; Añorga, 2012; El Aedo, 2013).



Bestalde, Hernandezek (2006) dio 70eko hamarkadan Euskal Herrian bizi izan zen kultur mugimenduak lotura estua izan zuela tradizioaren berrinterpretazioa eta transmisio rola bereganatzearekin, eta ez zela nostalgia hutsez eraiki.

Diaz de Gereñuren (2016) aburuz, hizkuntza gutxituetako kontalariek zailtasunak aurki ditzakete hizkuntza nagusien egituretan sartzeko orduan, baina badaude egitura nagusi horiek bultzatzen dituztenak ere, Euskal Herriko kontalari guztiek ez baitituzte helburu berdinak: batzuk konforme aurkitzen ditugu hizkuntza gutxituak eskaintzen duen merkatuarekin, baina, beste batzuek hegemonikoak diren hizkuntzen kultur sareak baliatzen dituzte, hizkuntza gutxituenak ez dituelako asebetetzen euren asmoak. Beste zenbait esparrutan ikusi daitekeen bezala, Euskal Herriko kontalaritzaren kasuan, bi estaturen artean bizi den herri baten parte izateak kultura ikuspegiaren eta hizkuntza aplikatzeko orduan aniztasuna egotea dakar.

### **2.3.2.2 Kontalaritza, gaur egun**

Gaur egun Euskal Herrian kontalaritzak lekua eta errepresentazioa baldin badu ere, asko dira adierazten dutenak euskarazko kontalaritza berriak gidaritza argi bat falta izan duela. Koldo Amestoyk euskarazko kontalaritzaren sorreran rol erabakiorra izan bazuen ere, zenbait euskal kontalariren aburuz, belaunaldi gazteenek Amestoy bezalako ereduari eman dieten garrantzia eskasa izan da. Kontalari berriek ikastaro eta eskuliburuaren bitartez jaso dute nagusiki jakintza eta formakuntza.

Eragozpenak eragozpen, belaunaldi gazteak euskarazko kontaketen eskaintza kultural egonkor eta sendoa osatuz joan dira. Egun, kontalari adituen eta kontak-praktiken aniztasuna handitu da, eta euskarazko kontalaritza berriak giza komunikazioaren ekintza esparru oso bat berreskuratu eta asmatu izanaren merezimendua dauka. Sistema indartzeko, ahozkotasanaren inguruan sortutako festibal eta elkarteek ekarpen handiak egin dizkiote generoari. Kontalaritza berria, kontalaritza zaharrarekiko erabateko haustura suposatu duen etapa baino, historia marrazten segitzen duen errealitate bat da. Hala ere, ezin dugu ahaztu kontalaritzatik bizi diren gehienak liburutegi eta eskolek egiten dituzten programazioei esker bizi direla.

## **2.4 Kontalaritza eta hezkuntza**

### **2.4.1 Kontalaritzaren eta hezkuntzaren arteko harremana**

Kontalariak eta kontak-praktika aztertzen dituztenak kontalaritzaren eta hezkuntzaren arteko harreman estuaz mintzo dira. Aurretik aipatu bezala, kontaketa gehienak, kontalaritza berriaren hastapenetan, haurrentzako antolatuak ziren eta

gozamenezkoak ez ziren helburuak baldintzatuta jaio ziren. Gaur egun egoera berdintsuan gaude, helburu horietatik ezin askatu, bereziki euskarazko kontaketei dagokienez (*Behinola*, 2010; Diaz de Gereñu 2012; Hernandez,2006). Erran daiteke, beraz, konparaketa bat egite aldera, haur literaturaren idatzizko adierazpideei didaktismoak edota pedagogizazioak egiten dion eragin negatiboa biderkatu egiten dela arlo honetan (Etxaniz, 1997;Lopez, 2006).

#### 2.4.2 Kontalaritzak hezkuntzari eskaintzen dizkion onurak

Adituek erran dutenez, kontaketek ez lukete helburu didaktiko bat izan behar nagusiki. Hala ere, horrek ez du erran nahi ez denik beharrezkoa bere onurak adieraztea, kasu honetan hurrekiko. Diaz de Gereñuren (2005) hitzetan, kontagintzak aukera ederrak eskaintzen ditu ahozko ez-formalaren alderdi batzuk lantzeko, hala nola anai-arreben arteko hizketa edota lagun artekoa. Izan ere, kontalaria, narratzailea izateaz gain, protagonistei ahotsa jartzeaz arduratzen da.

Larringanek (1992) dioenez, kontalaritza gertakari diskurtsiboa eta gramatikala dugu aldi berean: komunikazio eta hizkuntza praktika. Horregatik, komunikazioari dagokionez, fokua kontalaritzaren izaera sozial, dialogiko eta intertestualean jartzen du Larringanek. Horrez gain, bere lanean egiturari, kohesioari, konexio estrategiei edota lexikoari eragindako onurez mintzo da.

Ikerketek horixe berresten dute: ipuin kontaketen onurak hizkuntza-garapenetik haratago doazela. Padovanik (1999) egindako ikerketa batean ondorioztatu zuen ipuin kontaketaekin hastean talde-dinamikan aldaketa handiak antzeman zituela, eta irakasleekin harremanik ez zuten ikasleek ipuinaren bidez harreman estuago bat lortu zutela. Larringanek (1992;505) kontaketa-arenean haurren sormenak har dezakeen garrantzia azpimarratu du:

Ipuingintzan aldaketa artebide bilaka daiteke, bariazio eta bertsio propioak gauzatzeko aukera ematen baitzaigu. Egia esanda, ipuingilea (ipuinlaria) transformazio sistemaren erdi erdian aurkitzen da: jasotzailearen arabera moldaerak burutu ditzake, kultura-erreferentzia berriak gauzatzeko (tokikoak, agian); esaerak, etabar luze bat.

Badaude ondarearen aberastasunaz mintzo direnak ere. Fortúnen (2008:24) iritziz, arras garrantzitsua da haurrak ipuina ahozko narraziotik jasotzea, mundu fantastikoarekin izandako lehenengo kontaktuak hitzaren bitartez jaso behar baitu. Ipuinak gure arbasoetatik jasoak dira, eta belaunaldi berriek jaso genuen bidetik transmititzeko betebeharra daukagu. Fortúnek gehitzen du ipuina dela haurraren atentzioa piztea lortzen duen bakarra. Ipuinak entzuteko ohitura faltak txikia hasieran despistatua egotea eragin dezakeen arren, ikasten doan heinean ipuinetik gertuago

egonen da. Arreta jartzen ikastean, mundu imajinarioa ikusten lagunduko dioten begiak zabalduko zaizkio, eta ikusten duen horrekin bere iruditegia (behar beharrezkoa duena) handituko da: iruditegi on bat lantzea ezinbestekoa da, batez ere horrenbeste kanpo estimulu ditugun garai honetan.

Aurretik aipatutako onurak baliagarri izan daitezzen, ezin dugu ahaztu kontalaritzaren helburu nagusiak bi direla. Batetik, balio estetikoak hauteman eta gozatzea; bestetik, berriz, ongi pasatzea edota interesa sortzea. Horretarako beharrezkoa dugu giro atsegina eta magikoa sortzea (Elorza, 2009b:66). Eskolako ikasgelak hori bermatu dezake, programatzaileak gai kurrikularrak lantzeko aukera izateaz gain, ikasleei gozamenerako momentua eskaintzea bermatzen baitu (Padovani, 1999).

#### **2.4.3 Hezkuntzak kontalaritzarekiko dituen ikuspegia eta jarrera**

Hezkuntza formalean, ipuin kontaketa hizkuntzaren garapenean laguntzeko baliabide izatera mugatu dela dirudi. Haur Hezkuntzan, adibidez, arras ohikoa da irakasleak gaiarekin lotua dagoen ipuin bat behin eta berriz errepikatzea. Beste kasu batzuetan, irakaslea klasean dagoen materiala (haurrek etxetik ekarritako liburuak, aurretik prestatu gabekoak) elkar banatzearekin konformatzen da. Prestaketa eta antolaketa falta honek ikaslea eta bere interesak kontutan hartzea galarazten du. Era berean, ez dira ahozkoasuna eta gorputz adierazpena aurretik lantzen, eta horrek eragina du kontaketa-praktikan. Ondorioz, Garcia Arriolak (2017) dioen bezala, disfrutatzea helburu duen ekintza jarduera aspergarri bilakatu daiteke.

Ikerlariek, kontaketa eskolaren historian zehar izan duen lanketa behatzean, azpimarratzen dute ahozko moldetik urrundu eta idatzizkora jo duela. Idatzizkoari ahozkoari baino garrantzia handiagoa ematearen akatsa egin izan da. Ez hori bakarrik, eskolan praktikatzen den ahozkoak oinarrian testua izateaz gain, ahozkoaren irakaskuntzari lotutako irizpideak ez direnez finkatu, idatzizko gaitasunak irakatsi eta ebaluatzeko baliabideak garatu dira gehien bat (Fabre eta Lacroix, 1974; Schneuwly, 1996).

Diaz de Gereñuren arabera (2005; 35), eskolako urteetan, ahozkoasunaren lanketak behera egiten du nabarmen, baita ikasleen harekiko estimazioak ere. Honela mintzo da:

Eskolan, ikuspegi hori zabaldu dela uste dugu. Aipatutako elkarrizketetan, sei eta hamasei urte bitarteko ikasleekin egindakoetan, ikasle txikienek ahozko kontaketa atsegin dutela diote (salbuespenak badaude eta kritikak ere egiten dituzte). Ikasle nagusienek, berriz, kontaketa-rekiko axolagabekeria eta kasu

batzuetan mespretxua ere erakusten dute. Erabilgarritasunik, zentzurik ez diote ikusten nagusiek, ez bada ikasle txikienekin jarduteko. Ipuinak idazteari dagokionez, berriz, nagusiek baliagarritasun handiko ariketa dela diote, nahiz eta argi aditzera eman ipuinak berez ez direla haien adinerako egokiak. Ikasleen iritzi hauen azpian gizartean kontagintzaren estatusak izan duen bilakaeraren ondorioz etorritako aurreiritziak daudela ematen du.

Gauzak horrela izanik, ikertzaileek kezka adierazten dute eskolan ahozkoatasunaren presentzia urria delako eta ikasleen partetik generoarekiko jarrera gogorrak agertzen direlako.

#### **2.4.4 Egoera horren aurrean ikertzaileek proposatzen dutena**

Panorama honen aurrean, ikerlariak, ahozkoatasunaren garrantziaz ohartarazi bidenabar, zenbait proposamen egiten dituzte kontalaritzaren egoera, ikaslearen perspektiba eta ahozkoatasunarekiko jakintza maila hobetzeko.

Larringanek (1992) gogorarazten digu konta-praktikak hizkuntza egitura konkretu bat dakarrela berarekin. Hau da, idatzizkoa bakarrik landuz gero, ahozko jarduerak eskatzen dizkigun zenbait ezagupen galduko lirateke. Jendaurreko kontaketa beregaina da, eta, horregatik, idatzizko komunikazioa eta ahozko komunikazioa lantzea komeni da.

Ahozko kontaketa erdigunera ekartzea proposatzen du Diaz de Gereñuk (2005). Horretarako, beharrezkoa da maila altuko interakzio egoera eta testu monogestionatua kudeatzea. Ikertzailearen hitzetan, efektu estetikoak bilatu behar da, ibilbide narratiboa ongi asmatu, testu koherente eta kohesionatuak egin, hizkuntza molde jakinak erabili, eta abar. Guzti hau, gozamenetik urrundu gabe.

Gure herrian aski ezaguna den eta haur literaturaren alde lan asko egin duen Igerabidek (1993) azpimarratzen du ipuin kontaketa helburu ludiko eta estetikoak kontutan hartuz landu behar dela, eta eskolaren jardunbidean integratua beharko lukeela. Gaineratzen du hori ez dela haurrei soilik zor diegun zerbait.

Ginebrako eskolak dioenari jarraituz, Diaz de Gereñuk (2005) zenbait ikertzailearen proposamenak jasotzen ditu. Hauek (Dolz, Schneuwly, etab.) behar-beharrezkoa ikusten dute ahozko kontaketa irakaskuntzan ikerketak egitea, eduki eta helburuak zehazte aldera eta eredu esanguratsuak jasotze aldera. Eskolan eta eskolatik kanpo kontalaritzari zor zaion espazioa aitortzea ere ezinbestekoa da, eta horretarako kontalari profesionalak gonbidatu eta haiekin elkar lanean aritu gaitezke.

### 3. Metodologia eta corpusa

#### 3.1 Metodologia

Gradu amaierako lan honen helburua da kontalaritzak hezkuntzan duen eragina jaso eta aztertzea kontalari profesionalen ikuspegitik. Horretarako ikerketa kualitatiboa egitea pentsatu dugu eta elkarrizketa luzea erabili dugu, hiru bloketan banatuak dauden galderekin.

“Kontalaria ezagutzen” izeneko lehenengo blokean (10 galdera), kontalari bakoitzari bere buruaz eta ofizioan izan duen esperientziaz solasteko eskatu diogu. Bigarren blokean, “Kontalarien ipuinak eta hauen mamia” (15 galdera), ipuinen balioan eta konta tekniketan sakondu dugu. Azkenik, “Kontalaria eta publikoa” izendatu dugun hirugarren blokean (13 galdera), kontalaritzak berekin dakarren publikoaz eta horren eboluzioaz mintzatu gara. Hasieran asmoa kontalari guztiei galdera berdinak egitea bazen ere, kasuan kasu, galderak gehitu edo kendu ditugu elkarrizketaren onbeharrez (Ikus galdetegia 1. eranskinean).

Lan honen bitartez, besteak beste, gure helburua galdera hauei erantzuna ematea da:

Lehenengoa: Jakin nahi dugu kontalarien iritziz irakasleek, bibliotekariak eta teknikariak (haurren ekintzak kontratatzen dituzten pertsonak) kontaktak kontratatzerako orduan zeri ematen dioten garrantzia. Hau da, ea ikasgelan, liburutegian edo udalerrian garatu nahi diren kompetentziak lantzeko eta curriculum osatzeko erabiltzen diren kontaktak, edo, alderantziz, ipuinen balio propioa zein den jakinik, hauek indartzeko bultzatzen diren.

Bigarrena: Jakin nahi dugu kontalarien aburuz, ipuin kontaktak izaera kolektiborik duten. Hau da, komunitatean kontaktak balioa gehitzen dion kontaktari, edo ez. Ikusi nahi dugu pertsonak batu eta komunikatzeko tresna aberatsa den.

Gure hipotesiak, aldiz, honako hauek dira: Lehen helburuari lotuta guk uste dugu gaur egun, batez ere curriculum osatzeko erabili ohi direla ipuinak eta ez hainbeste ipuinak berak dituen balioak indartzeko. Bestalde, bigarren hipotesi moduan, uste dugu ipuinek izaera kolektiboa bultzatzen dutela.

Elkarrizketa hauetan bost kontalariren testigantzak jaso ditugu, eta guztiak daude bideoz grabatuak.

### 3.2 Corpusa

Ikerketa honetarako, ezinbestekoa zen Euskal Herriko kontalaritzaren panoramika ezagutu eta bizi zuten kontalariak elkarrizketatzea, ahalik eta datu errealistenak jasotzeko. Aukeraketa egiterako orduan, ofizioan daramatzaten urteak eta generoa hartu genituen kontutan, modu horretan elkarrizketak mamitsuagoak izango zirela suposatuz. Gainera, aurretik egindako kontalaritzaren inguruko ikerketei behatuz gero (A. Garcia-Arriola, E. (2017), Díaz de Gereñu, L. (2005), Díaz de Gereñu, L. (2016), Behinola (2010) ikusi daiteke badirela bost kontalari nabarmentzen direnak: Koldo Amestoy, Maite Franko, Joxe Mari Karrera, Virginia Imaz eta Pello Añorga. Eta horiek izan dira elkarrizketatutako kontalariak.

Hala ere, lanaren mugak kontutan hartuz, behin elkarrizketak egin ondotik, corpusa mugatzeko hautua egin dugu. Horregatik, guk landu nahi ditugun gaiei buruz (ipuinaren balioaz eta kontalaritzaren eta hezkuntzaren arteko harremanaz) informazio mamitsuena eman diguten eta arlo horietan esperientzia gehien duten bi kontalariengan zentratu gara: Virginia Imaz eta Pello Añorga.

### 3.3 Grabazioa

Grabazioak egiteko, kontalari bakoitzarekin hitzordua jarri eta irudia eta soinua ahalik eta garbienak izan zitezen leku lasai bat aukeratzen saiatu ginen. Ondotik, kamara bakarrarekin (tripodearen laguntzaz) eta plano bakarrean jaso genituen irudiak. Horrez gain badaezpada ere mugikorrarekin soinua grabatu genuen. Elkarrizketa guztietara galdetegi bera eraman arren, elkarrizketatuak ateratako gaia interesgarria zen zenbait kasutan hari berriari tira egin genion.

### 3.4 Datu bilketa

Elkarrizketetako datuak jasotzeko, minuteroko bat egin genuen (Ikus minuteroko 2. eranskinean). Bertan, kontalariak errandako ideia guztiak zerrendatu genituen, eta ideia horiek zein minututan aipatzen ziren apuntatu. Elkarrizketa guztiak analizatu ondotik, kontalariak errandakotik abiatuz, lanarentzat interesgarriak izan zitezkeen lau ideia nagusi edo bloke proposatu genituen: kontalaritza eta hezkuntza, ipuinak nola kontatu, zer da kontalaritza eta ipuinen balioa. Kasu honetan, erabaki genuen lanaren beharretara hobeki egokitzeko bi bloke soilik garatzea.

## 4. Datuak

### 4.1 Ipuinen balioa

#### 4.1.1 Pello Añorgak ipuinen balioaz

Hurrengo lerroetan, hari egindako elkarrizketan Pello Añorgak ipuinen balioaren inguruan errandakoa jasoko dugu. Ezer baino lehen, azpimarra dezagun Añorgak ipuinaren balioarekiko sortu duen ikuspegia arras lotua dagoela kontalari bezala ipuinekin duen harremanarekin. Erran nahi baita, bere kasuan teoria eta praktika oso lotuak daude.

Añorgak zenbait adibide eta metafora erabiltzen ditu ipuina definitzeko: “Ipuina haur txiki bat bezalakoa da. Izaki txiki hori zaindu behar da eta, hitza lagun, handitzen joaten da. (...) Kasu batzuetan ipuinak zu aukeratzen zaitu, ate joka dator, eta beste batzuetan kontalaria doa ipuinaren bila”.

Kontalariaren aburuz, ipuinak zerbait erran behar digu, kilimak sortu, kontatzeko gogoak piztu; horrela dela sentitzen badugu, “sanazio” bidea bihur daiteke, identitatea ematen diguna, bihotza zabaldu eta enpatikoago bihurtzen gaituena. Hori gerta dadin, ipuinak harritu egin behar gaitu, hunkitu, barrenean oihartzun bat piztu behar digu, eta istorioarekin edo pertsoniarekin identifikatuta sentitzen lagundu behar digu.

Ipuina ona denean, Añorgaren arabera, “bisioa dauka”, eta ez du adinik; beraz, entzule oro harrapatuko duen sare bat bezalakoa da. Ipuina modu eta ezaugarri askorekin definitu eta lotu dezakegun arren, Añorgaren ustez ezin dugu ahaztu barrura begirako zerbait dela. Eta gehiago ere esaten du: “Gauza sinpleak gero eta gehiago gustatzen zaizkit. Sinpleak, baino lehen esan dut, sinpletasun hori, nola, ez sinplekeria”. Horretarako, ipuinak egiatik kontatu behar dira.

Añorgak jendaurrean probatzen ditu ipuinak, eta ipuinak berak esaten dio gordin dagoen ala ez. Horrela, ipuina kontalariarekin batera doa gorpuzten, arnasa hartzen eta zailtzen. Prozesu hori metafora batekin azaldu digu: “Ipuina arroka bat da, eta kontatuz jartzen duzu bizitzaren errekan. Hasieran zakarra eta gordina dago, baina finduz eta borobilduz doa; geroz eta borobilago, orduan eta hobeki kantatuko du”.

Pello Añorga ipuinetatik bizi da eta prozesu baten parte dela sentitzen du: “ Momentu bat iristen da ipuina zure parte bihurtzen dena”.

Sinbiosi moduko hori ipuinek beregan eragin duten guztiari zor dio hein handi batean. Ipuinak aldatzen du bera, ezinegona sortzen dio, bere haur txikia esnatu eta horrekin helduago sentiarazten du. Ez hori bakarrik, ipuinekin etxean sentitzen dela

azaldu digu, oso urrun joan daiteke baina oso gertu sentitu: hizkuntza sinbolikoa erabiliz, sustraiak aurkitzen ditu. Horregatik, normalean bizitzarekin konexio indartsua duten eta poesiatik gertu dauden istorioak kontatzen ditu.

Añorgaren ustez, kontalaria ipuinaren eta entzulearen zerbitzaria da, eta hauen arteko lotura oso estua da: “Ipuina kolektiboa da, elkartzeaz ari gara, hau da, ipuinak elkartu egiten gaitu. Besterik gabe emozio bat duelako eta indar hori daukalako”.

Ipuinak eta haurrak duten loturaz ere mintzatu da elkarrizketan. Haurrak ipuinekin arrainak uretan bezala sentitzen direla kontatu digu, ipuinak era sinplean iristen direlako haurraren gana. Ipuin baten benetako balioa ipuina ongi entzutean datza, haurra emozionatzean eta konektatua egotean. Izan ere, komunikazioaren oinarria (ipuinaren balioa) kolektiboa da: ipuinak elkartzen gaitu, emozio bat eta indarra duelako.

Komunikazio hori gerta dadin, Añorgak hizkuntza zuzen eta sinplearen beharra aldarrikatu ditu:

Hala ere, ezin dugu ahaztu, batez ere txikiekin, mitoak sortu behar direla (...), hizkuntza sinple eta gardena erabili. Haurtzaroan (9 urteak arte, gutxienez) ezin da haurra transgreditu, ironiak aparte utzi eta gardentasunez jokatu behar da (...). Guzti hau aplikatuz gero, ipuina sua bihurtuko da eta jendea berotuko du.

#### **4.1.2 Virginia Imazek ipuinen balioaz**

Virginia Imazi egindako elkarrizketan (elkarrizketa erdaraz egin zen eta erantzunak euskaratu ditugu), ipuinaren balioaz mintzatzen garenean, ez da definizioetan sartzen. Hurrengo lerroetan ikusiko dugun bezala, elkarrizketatuak urteetako bere lanketaren bitartez bizi izan dituen esperientziak eta hausnarketak plazaratu dizkigu, eta hauen bitartez ipuinen balioa zer den marrazten du.

Imazentzat ipuinak ez dira liburu edo ahozkotasunera mugatzen, ipuinak bideo jokoetan daude, clownean, kantuetan... Hala ere, berak txikitatik jaso zuen ahozkotasunaren bidez ipuina, bere amonen bitartez. Bere bizitzan zehar, ipuina erreminta baten antzera jaso du eta erreminta honen bitartez bere behar handi bati erantzun ahal izan dio: kontatzeko beharrari, hain zuzen ere. Bere ustez, familia guztietan eta generazio bakoitzean dago narratzaile bat (nahiz eta profesionalki ez garatu), eta ipuinaren bitartez familiako sekretuei, konpondu gabeko gatazkei, eta abarrei eman izan zaie erantzuna.

Bere hitzetan: “ipuinek metaforan hezten gaituzte, posible dena eta ezinezkoa dena elkartzen diren tokia da ipuina (...) eta haurrak oso erraz sartzen dira mundu



metaforiko eta sinbolikoan, arras errez itzultzen dute mezua”. Ipuinak arras pedagogikoak izan daitezkeela uste du Imazek, fikziotik kontatuak egon arren, maila emozionalean egiazko istorioak direnean: horren arrazoia da baloreetan hezten gaituztela, ohituretan, gure aurretik munduan egon diren eta arazoak izan dituzten horien soluzioez hitz egiten digutela... Zenbat eta konponbide gehiago eduki arazo berdinarean aurrean, orduan eta hobe jasotzen duenarentzat.

Ipuin batzuk behin edo behin besterik ez ditu Imazek kontatu, beste batzuk, aldiz, milaka bider. Bere ustez gakoa ipuinarekin daukan konexioan eta harremanean dago. Sailkapena egiterako orduan, ipuinekin duen harremana pertsonekin eduki ditzakeen harremanekin konparatzen du:

Nik uste, hein handi batean, ipuinekin ditugun harremanak zenbait jenderekin ditugunak bezalakoak direla. Pertsona batzuekin harremana bizi osoan zehar daukagu (...), ez dugu egunero elkar ikusten, urtean lauzpabost aldiz besterik ez, baina eguneratu eta dena ongi dago, onarpen eta konplizitate handia dago. Beste batzuekin, bizitzako momentu batean harremana oso estua da, baina ondotik bizitzak hona eta hara eramaten zaitu, kontaktua denbora luzez galdu daiteke, berriz elkartu zaitezke,edo gaizki bukatu. Azkenik, jende ezaguna dago, ongi eramaten zarena, baina ez doa hortik haratago.

Imazek dioenez, ipuinak oso txikitatik jaso eta kontatu baditu ere, irakasle eskolan sartu zenean, ipuinen bitartez haurrak hezteko gogoia sartu zitzaion, ipuinekin gozatzekoa baino gehiago. Hala kontatu digu:

Nik uste momentu horretan hanka sartze handiak egin nituela, haurrak engainatu egiten genituelako: ipuin bat kontatuko geniela esatean genien, baina ez genien ipuinik kontaktzen. Album ilustratu bat izan daiteke, baina askotan “behin batean”-ekin hasten den gomendio bat da, kronika bat, inbentario bat. (...) Baina haurrek ongi dakite ez dela ipuin bat.

Gaur egun kurtso asko ematen ditu kontalariak eta ipuinek osagai batzuk behar beharrezkoak dituztela uste du:

Nik, nire tailerrei, “bat-batean edukitzea” (*que tenga derrepente*) deitzen diet, ipuin bat kontaktzen dudanean, bidaia iniziatiko bat dela azpimarratu nahi dudalako: zerbait gertatu behar da, indarra duen zerbait, normalean ikasgelan aipatzen ez den zerbait, horretan ere norbaitek murgildu behar ditu haurrak, eta batzuetan istorioa da. Bestalde, antagonista dago, beti ez duena gaiztoa izan beharrik, batzuetan anbibalentea da, baina haurrak zenbat eta txikiago izan, orduan eta behar handiagoa dute imajinarioan polaritatea haragitzeko, alde argia eta iluna, eta alderdi argia ahalik eta gehienetan irabazle ateratzeko.

Azken urteetan, ipuinak aukeratzeko orduan (eta hauen balioa ahalik eta gehien zukutu nahian), sinbologiari eta bukaerari eman die garrantzia gehien Virginia Imazek:

Azken urteetan, bukaera konpontzaileak, sendatzaileak (esperantza ematen digutenak) bilatzea da niri gehien interesatzen zaidana, batez ere haurrei

zuzendutako ipuinetan. Bestalde, imajinario kolektiboaren deskolonizazioa dago. Izan ere, gaur egungo haurrek inoiz baino irudi gehiago dituzte buruan, baina irudi kolonizatuak dira: Hollywoodetik eta publizitatetik jasotakoak, informazioarekin datozenak, neutroak ez direnak. Suposatzen da gure imajinarioa landu eta iruditegi propioa sortzeak zerikusi handia daukala ahozkotasanarekin, ahozkotasuna gonbidapen bat baita entzuten duzunaren arabera iruditegi propio bat sortzeko.

## 4.2 Añorgak eta Imazek kontalaritzaz eta hezkuntzaz

### 4.2.1 Kontalaritza berriaren hastapenak Hego Euskal Herrian

Kontalaritza berriaren hastapenak harreman estua izan zuen hezkuntzarekin. Harreman hori nolakoa izan zen aztertuko dugu Virginia Imazek eta Pello Añorgak esandakoak jasoz.

Hego Euskal Herrian, Pello Añorga eta Virginia Imaz aitzindariak izan ziren kontalaritza berriari bidea ematen. Biek ala biek harremana zeukaten ipuinekin ofizioan sartu aurretik. Añorgak etxean eta izeba osabekin jaso zituen bere lehenengo ipuinak. Imazek sakon hitz egiten digu haurtzaroko transmisio hartaz:

Oroitzapena daukat, udan, adibidez, nire ama Nafarroako Erriberakoa zenez, bertara joaten ginela. Arratsaldero, siestaren ondotik, denak korruan elkartzen ginen, koadrila handia elkartzen ginen, guztiak familiakoak, 30-40 izango ginen guztira, adin guztietakoak. (...) Merienda eman eta istorioren bat entzuten genuen 20-30 minutuz. Ondotik lehengusu-lehengusina guztiak joaten ziren, baina beste bat eta ni bertan gelditzen ginen, zeren ipuin gehiago kontatu behar bazituzten, guk entzuten gelditu nahi genuen. Garai hartan haur oso arraroak ginen lehengusu eta lehengusina klan horren barruan, gu kapaz ginen arratsaldean ipuinak entzuten hasi eta afalordu arte bertan segitzeko. Urte asko geroago konturatu naiz erreleboan ari ginela.

Kontalaritza zaharra zein berria hartu eta emaneko harremanean oinarritzen dira, eta harreman horretatik loratu zen Añorgaren kontalari alderdia:

Niretzako iraultza izan zen: ni Oiartzungo ikastolan irakasle bezala nentzen eta, irakasle guztiak bezala, ezinbestez ipuinak kontatzen nituen. Eta hasi nintzen ni kontatzen, eta egun batean esan nuen: joño! Ni sentitzen nintzen, nire bihotza oso gertu sentitzen nuen, eta haurrena ere bai, haurra ere bai, eta esan nuen: ipuinek zer dute? Eta orduan jarraitu nuen kontatzen, eta haurrek eskatzen zidaten, eta orduan hor hasi nintzen kontatzen. Gogoratzen naiz hor gelaren barruan itinerario fantastiko batzuk sortu genituela, eta hor hasi nintzen maleta batzuekin bidaiatzen, auzo ezberdinetara joaten... Haur guztiak hor zain egoten ziren: "Pello, Pello!". Eta orduan sartzen zara ibilbide batzuetan sentitzen zarena identifikatua.

Virginia Imazek, kontalaritza berriaren hastapenaz, irakurketa globala egin digu:

Euskadin ahozko kontaktaren berrikuntza Guadalajara eta beste leku batzuetakoekin batera gertatu zen, urte batzuk lehenago, agian. Izan ere, hamar urte lehenago Ipar Euskal Herrian jende euskalduna kontatzen hasia zen, ezin baitugu ahaztu Frantzian ahozkotasanaren berrikuntzarako

mugimenduak 10-15 urte lehenago hasi zirela. Beraz, euskaldunen artean batetik bestera pasa zela erran daiteke, eta ospe handiko jendeak lagunduta, Koldo Amestoy adibidez, Hego Euskal Herrian lehenengoetarikoa Pello Añorga izan zen.

Hastapen haietaz ongi oroitzen da Añorga bera. Gogoan du herritarrek zer nolako iritzia zuten ipuinei buruz, eta Euskal Herriko egoera politiko eta sozialak eragina izan zuela aipatu digu:

“Ni hasi nintzenean ez zegoen ezer, eta ezer da ezer. Bueno, orduan, politikan zera, iraultza eta zera... Ni hasi nintzenean ikastolan bertan, batzuek, ez dut izenik esango, baina batzuek esaten zuten: “hau txorietan dago, e? Beti hegan dago, hau zera dago ipuinak, ipuinak...”. Gaizki ikusiak zeuden: “ipuinak, zer aldatzeko? Ipuina, hori txorakeria, hori ihesbidea da, tontakeriak, inozokeriak, txepelkeriak”. Ipuinak ez zeuden ongi ikusiak. Gero etorri zen pedagogia ikuspegitik ipuina inportantea, irakurzaletzeko... hori gero etorri da, alderdi psikologikotik, ipuinek balio dutela ere norberaren psikean arakatzeko eta... hori gero etorri da.

Añorgak erran bezala, dena egiteko zegoen orduan. Kontalaritza berria Euskal Herrian sartzeko egin zituen ahaleginez mintzatu zaigu:

Dena egiteko zegoen, eta orduan Bartzelonan eta Parisen, hainbat lekutan *ipuinaren ordua* zegoen biblioteketan. Orduan, gogoratzen naiz elkartu nintzela bost bibliotekariarekin: Ordiziakoa, Donostiakoa, eta abar. Ni neu bakarrik hango bibliotekariekin; eta esan nien: “ei, hau eta hau egin behar dugu”. Eta joan nintzen Parisera dokumentatzera, ekarri nituen diapositiba batzuk han nola funtzionatzen zuten, eta horrela hedatu genuen lehenengo ipuin ordua, biblioteketan. Hori zen, ipuin ordua, eta, noski, bibliotekak ere oso gutxi zeuden orduan, eta gogoratzen naiz nola hasi nintzen. Gero gonbidatu nuen Virginia Imaz, eta berak esaten du: “Ni zuri esker hasi nintzen kontaktzen”. Paretsu hasi ginen. Eta, noski, hor gertatu zen nola inor gehiago ez zegoen, hasi nintzen biblioteketan, gero eskoletan ere bai, elkarrizketak egiten dizkizute, agertzen zara prentsan, gero deitzen dizute, gero parte hartu nuen Koldo Amestoyk antolatutako festibaletan (orduan ni hasi berria nintzen) Hazparnen. Han ezagutu nituen Frantziako kontalari handi-handi-handiak, niretzako munstroak zirenak, izugarri kontalariak eta ni haiekin kontaktzen, han eszenario handi haietan. Ni gogoratzen naiz kontaketa bat egin eta lau egun egon nintzela han etxean, txiki arraio egina. Ni, noski, hasi berria, eta ausardia puntu bat eskatzen zuen, baina nola niretzako ipuina izan den ene etxea, niri konfiantza horrek ematen zidan, jendeak ez, ipuinak, hizkuntza sinbolikoak, ni hor konturatzen naiz erabat aldatzen naizela.

Imazek txikitatik kontatu izan ditu ipuin solteak: kanpaldietan, lagun artean, etxean. Baina bera garai hartan ohartzen ez bazen ere, kontalari bezala 14 urterekin hasi zen. Donostian bizi zen garai hartan, eta maiz joaten zen liburutegira. Gogoan du haurren sekzioan Conchita Chaos egoten zela, eta 14 urte bete zituenean honek azaldu zion dagoeneko helduen liburutegira pasatzeko ordua iritsi zela. Imazek haurren liburutegira joaten segitu nahi zuen, bertako ipuinak asko maite zituelako. Momentu horretan Chaosek haurren liburutegian sartzeko aukera eman zion, baina kondizio batekin:

Donostiako liburutegian haurrentzako egiten ziren irakurzaletasuna bultzatzeko ekintzetan parte hartzea. Eta horixe egin zuen Imazek:

Nik maite nituen ipuinak kontatzen nizkien, eta 6-7 urte pasa nituen horrela. (...) Gero, momentu bat iritsi zen, nik irakasle-eskola bukatu ondotik (dagoeneko urte batzuk pasatuak ziren Donostiako liburutegian kontatzetik utzia nuela), Conchita Chaosek deitu zidana. Pello Añorgarekin zegoen, eta halaxe azaldu zidan: “Begira, Pello Añorgarekin nago eta komentatzen ari gara liburuaren lehenengo feria ospatuko dela eta irakurzaletasuna bultzatzeko zerbait prestatzeko eskatu digute. Pellok eta nik pentsatu dugu zuk egiten dakizun hori egin dezakezula, ipuinak kontatzearena”. Eta sei sesio eskatu zizkidaten, hiru gaztelaniaz eta hiru euskaraz. Feria hartan jende askok ikusi ninduen eta kontratu asko iritsi zitzaizkidan, ezin nituenak hartu, asko eskoletakoak baitziren; eta nik esaten nien: “ados, baina nik eskolan lan egiten dut”. Beraz, ofizioan nahigabe sartu nintzela erran daiteke. Gogoan dut Conchitak esaten zidala; “ordaintzen dizute, beraz, esan baietz”. Eta gogoan dut pentsatzen nuela (1983az hitz egiten dizut): “baina nola ordaintzen ahal digute kontatzeagatik?” Zeren eta garai hartan ez zen ofizio bat, inondik inora.

Garai hartan, Euskal Herrian formatu berri honetako lehenengo kontaktak plazaratzeaz gain, kontalaritzaren inguruko lehenengo formakuntzak eskaini ziren. Honela oroitzen ditu Imazek saio haiek:

Pello Añorgak eta biok espresio eta sorkuntza eskolaren bueltan ere kointziditu genuen, eta gogoan dut irakasleei zuzendutako tailerren bat eman genuela. Irakasleak txundituak zeuden, gogo handia zeukaten. Ondotik, Pello Añorgak asko estutu zituen harremanak Irakasle Eskolarekin. Egunen batean Euskadi mailan errekonozimenduren bat egin beharko litzaiokeela uste dut.

#### **4.2.2 Kontalaritzak haurren komunitatean bizi duen egoera**

Kontalaritza berriak 40 urte inguru ditu, eta urte hauetan aldaketa nabarmenak sumatu dira. Horren inguruan, honela mintzatu zaigu Añorga:

Ni kontatzen hasi nintzenean, esaterako Elgetan edo Oiartzunen bertan eta toki askotan, edade guzietako haurrak joaten ziren 13 urte bitartean, nerabezaroa zegoen mugan. Gaur egunean zazpi urtetatik gora muga dago. Eta ni egon naiz, plaza batzuk baditut, eta egia da: maila jaisten ari da. Baina zergatik maila jaisten? Ez haurrak ipuinak maitatzen ez dituelako, e! Ze ni bosgarren mailara joan naiteke, eta haurrak txoratzen, e! Gainera hola garapen gehiagoko ipuin bat kontatu dezakezu, ipuin bat ordu erdi batekoa, berdin-berdin jarraitzen dute entzuten. Arazoa zein da... Ez dago biblioteketan. Zergatik ez dira hurbiltzen zazpi urtekoak, edo gutxi? Ea, sei-zazpi urterekin, hasten dira futboleant, eta mutiko guztiak futboleant (emakumezkoak ere sartzen ari dira) baina, kirola, ingelesa, partikularrak... Ikasketa sistematikoa eta formala eta ekintza horiek antolatzen dira arratsaldeko seietan, zazpietan, eta adin horretan taldean funtzionatzen dute.

Ez da adina aldatu den bakarra, kontalariei egiten zaien eskaerak zehaztu eta zorroztu egin baitira. Hona hemen Imazen hitzak:

Batzuetan, enkargu bidezko eskaerak ikaragarri izorratzen didate. Adibidez: "Gustatuko litzaiguke ingelesez kontaketa bat egitea, hiru urteko haurrentzat eta kaleko segurtasunaren inguruan". Berdintasun aukerarekin bezala: hiru urteko haurrentzat. Ni generoaren gaiarekin oso kontzientziatua dagoen pertsona naiz, baina izan gaitezen zintzoak, hiru urteko haurrek oinarritzko bi beldur dauzkate: bat, irentsiak izatea (izan fisiko edo metaforikoki); edo bera galdu edo abandonatua izatea. Horregatik, adin hauetan, indarra duten ipuinak, benetan interesatzen zaizkienak, horiek dira, eta horiek dira beharrezkoak: *Txanogorritxo*, *Hiru txerritxoak*, *Zazpi antxumeak*, *Hansel eta Gretel*, *Munstroak bizi diren tokia*... Horiek dira bestselerrak. Orduan, horren inguruko ipuinak kontatu beharrean, pertsonen arteko harremanaz hitz egitea, haurrak harreman horiek etorkizunean ezagutuko dituelarik, ez dauka zentzurik. Ez dut esan nahi ezin denik lehenago landu, beti lantzen delako, esan nahi dudana da, nire posizioak eta nik banatzen ditudan rolerak... Denak hezten gaitu eta denak esaten digu zerbait, baina egiten dizkiguten eskaera batzuk benetan zentzugabeak dira.

Añorga ere mintzatu da enkargu hauen inguruan:

Bai, eskatu izan didate, baina ez zait gehiegi gustatzen. (...) Normalean ezetz esaten dut. Nik ez ditut ipuinak hau lantzeko edo bestea lantzeko kontatzen. Ni biziago mantentzen nautenak kontatzen ditut. Gizarte merkatalista batean bizi gara: ipuinak lo egiteko, zera egiteko... Ba ez, eta berdin literaturan. Baina, normalean, helburu batekin sortzen direnek indar gutxiago izaten dute.

Ofizioan horrenbeste urtez aritu ondotik, Imazek onartu digu badaudela oraindik ere onartzen dituen enkargu konkretu batzuk: zuhaitzaren eguna, berdintasunarekin lotuak dauden kontaktak, etab. Baina argi dauka kontaketa batek boteretsua izateko zer behar duen:

Ipuin kontaketa boteretsu bat hain da pedagogiko eta beharrezkoa adinetara eta adin bakoitzean haurrak dituen beldurretara egokitua dagoenean, ez duela merezi haurra gauza gehiagorekin gainkargatzea. Kontalari bakoitzak erabakiko du gero zeri eman nahi dion garrantzia eta non jarri nahi duen azentua. Nik errepertorio baten barruan gauza bat baino gehiago sartzen dut.

Ipuinei pedagogiaren zama gainean jarri zaiola ikusi dute gure elkarrizketatuek eta, honen inguruan, zera esan digu Imazek:

Irakasle Eskolatik intentzio onez betetako jendea dator batzuetan, baina bete-betean sartzen dute hanka. Askotan, kontatzen dituzten ipuinetan heroi bat dago, baina hasieratik perfektua da, ez du hanka sartzerik egiten. Orduan, ez dago bidaiarik, bidaia hasi bezala bukatzen du: hau da egiten den akatsik larrienetako bat. Album ilustratuetan, kontatzerako orduan, zenbait kontalarik, eta nola ez, irakasleek, askotan haien intentzio onek mugituta, ipuinaren datuak aldatzen dituzte, ipuina hasierako boteretik urrunduz.

Adibide bat ere jarri digu Virginia Imazek, Txanogorritxoren istorioaren bueltan. Kasu horretan, narratzaile batzuek otso salbatu nahi izaten dute, eta justifikatzen saiatzen dira esanez ikasleak ikasi duela otso gutxi gelditzen direla... Kasu horietan, Imazen iritziz, haurrak kezkatuak gelditzen dira eta euren buruari galdetzen diote: "Noren

eskuetan gaude? Heldu arduragabe hauek! Otsoa libre utzi dute imajinarioan!”. Izan ere, Imazek erraten duenez, hurrek ederki dakite pertsonaiak haien esentzia direla eta ez direla aldatuko. *La bruja debe morir* liburuari egin dio erreferentzia afera hau azaltzeko. Istorio horren kasuan, konponketak zerikusi zuzena du zigorrarekin, eta hiltzaileak hila behar du:

Irakasle eta bibliotekari askorentzat (jende ona) hau astakeria bat da. Baina nik bukaera konpontzaileetan sinesten dut: ez naiz politikoki zuzenaz ari, sinbolikoki konpontzen duen horretaz baizik.

Añorga, Irakasle Eskolako irakasle izanik, maiz aritu da hauekin elkarlanean. Halaxe kontatzen digu:

Badaude irakaskuntzan irakasle batzuk esaten dizutenak: “Puf, nik ez dut hau kontatu nahi, ze oso sexista da”. Bueno, bale, ba ez kontatu, zuk kontatu sinesten duzun horretatik. Kontalariak kontatu behar du egiatik, baina egia oso subjektiboa da. Baina bueno, egiatik, zuk sinesten duzun horretatik kontatu behar duzu. Orduan, zuri ipuin horrek ez badizu ezer esaten, zozoa dela, utzi. “Jo, ba niri hau gustatzen zait”: ba hori kontatu. Hori bai, ez eskatu besteei hori kontatzeko. Haur hezkuntzan (unibertsitatean), askotan esaten didate: “Haurrentzat dauden ipuinak ez zaizkit gustatzen”. Bueno, ba zuk kontatu hori, zure bertsioa kontatu, zure bertsioa.

Ez da sistema aldatu den bakarra: haurrengan ere aldaketak sumatu dituzte azken urteetan. Atentzioa mantentzeko gaitasunaz mintzatu da Imaz:

Gaur egungo haur txikien gehiengoak 20-30 minuturekin nahikoa du. Honek zerikusi zuzena dauka telebistako marrazki bizidunen funtzionamenduari. Ez hori bakarrik, pausa publizitarioetara ere ohituak daude, eta kontaktetan badago momentu bat urduri nabaritzen ditudana, pausa behar dutelako. Geroz eta gehiago kostatzen da atentzioa mantentzea, nik uste azken 10-15 urteetan asko nabaritu dela. Hurrek geroz eta okerrago entzuten dute, baina nik uste oso lotua dagoela etxean bizi dutenarekin: gero eta gutxiago entzuten zaie. Pantailarekin harreman oso estua dago eta, noski, pantailak ez zaitu entzuten, zuk entzuten duzu pantaila. Estimulazio ikaragarria jasotzen dute hurrek, *zapping* konstante bat eta maila mentalean estimulazio gehiegi daukate, *zapping* gehiegi. Ez daude haur guztiak egoera berdinean, noski, baina 30 kideko talde batean lauzpabost hurrek atentzioa mantentzeko arazo kezkarriak dituzte. (...) Horrez gain, guraso batzuek euskara ikasteko elementu bat bezala perzibitzen dituzte kontaktak, eta hori akats bat da.

Añorgak ere antzeko ikuspuntua duela erran dezakegu:

Badirudi gero eta gehiago kostatzen zaiela haur batzuei isiltasuna mantentzea. Agian, gurasoek kontentzio lan gutxiago egiten dutelako, presentzia gutxiago. Badirudi gero eta presentzia eskasagoa duen gizarte batean bizi garela. Presentzia, aro digital batean bizi garelako. Presentzia da, hemen, gauden lekuan egoten jakitea; eta hori kontatzerakoan ikusten da. Horregatik, gaur egunean kontatzerakoan erabili behar izaten ditut beste estrategia batzuk haurrak egoteko bere lekuan, hasieratik egon daitezen lasai.

Imazen kasuan, berak argi ikusten du hezkuntzaren ildoek nondik joan beharko luketen:

Hezkuntzak metaforarekin eta umorearekin kontatu behar du, hauek baitira lengoia logiko-arrazionalarekin apurtzen dutenak, kausa eta efektuarekin. Horregatik dira behar beharrezkoak poesia, ipuinak, irria... Irria zirkuitulabur bat da gure garunean: haien artean harremanik ez duten bi gauza erlazionatzen ditu, poesiak bezala.

Bukatzeko, gaur egungo munduan kontalaritza nola ikusten duten galdetu diegu kontalariei. Añorgaren hitzak dira hauek:

Gaur egun, eskaintza piloa dago, ludotekak daude, gauza piloa. Lehen ez zegoen ezer eskaintza kulturalen: ez mago, ez pailazo... Txikiekin zer gertatzen da? Normalean, gurasoekin daude, eta ez dira horrenbeste lekutara joan behar eta errazagoa da. (...) Gaur egun eszenografia zera... oso zaila da horrekin lehiatzea. Baina badaude haur batzuk: "ez, nik kontatzea nahi dut". Badaude haur batzuk kontatzea nahiago dutenak. Kontaketa da oso arte biluzia, oso sinplea, zu joaten zara, zure arropa, hor zaude, eseri eta kontatu. Badaude guraso batzuk pentsatzen dutenak "joel!"; espektakuloa bilatzen dute, bizi dira mundu ikusgarri batean, ez horrenbeste entzuteko, ikusgarri batean. (...) Hala ere, inportantea da ipuinak egotea, ze nola oso arte biluzia den, horrelako espazioak kulturalki mantentzea oso inportantea da.

Imazek, berriz, honela borobildu du elkarrizketa:

Nire ustez, bizi garen garai honetan, komunikazioaren garaian, jendea geroz eta inkomunikatuagoa dago. Horregatik, jendea zain dago komunikazio esanguratsua noiz jasoko duen. Horregatik, ipuinek (eta ez bakarrik ipuinek: zuzeneko kontzertuek, antzerkiek...) dimentsio berri bat hartzen dute, erritualarena. Transzendentea bihurtzen da ekintza, zerbaiten parte sentiarazten gaitu, eta pantaila ezin da horrekin lehiatu. Ipuinaren momentua momentu adierazgarri bat bihurtzen da, eta hortik jarraitu dezakegu bilatzen. Baina oraindik ikusteko dago generazio berriak nondik joango diren.

## 5. Ondorioak

### 5.1 Eztabaida

Hurrengo lerroetan ikusiko dugu gure hipotesiak bete diren edo ez. Horretarako, Virginia Imaz eta Pello Añorgaren hitzak analizatuko ditugu, eta marko teorikoan errandakoekin kontrastatu.

Gure lehenengo hipotesia hau zen: lehen helburuari lotuta, jakin nahi dugu, gaur egun, curriculum osatzeko erabili ohi diren ipuinak batez ere, eta ez hainbeste ipuinak berak dituen balioez jabetzeko. Hau da, kontalarien iritziz, zeri ematen dioten garrantzia irakasleek, bibliotekariak, kontalariak eta teknikariak (haurren ekintzak kontratatzen eta gauzatzen dituzten pertsonak) kontaktak egin edo kontratatzerako orduan. Beste hitz batzuekin erranda, galdetzen dugu ea kontaktak erabiltzen diren, ikasgelan, liburutegian edo udalerrian garatu nahi diren kompetentziak lantzeko eta curriculum osatzeko.

Virginia Imazek, ipuinen balioaren inguruan lan aunitz egin badu ere, onartu digu irakasle eskolan sartu zenean ipuinen bitartez haurrak hezteko gogoia sartu zitzaiola, ipuinekin gozatzekoa baino gehiago.

Imazek errandakori behartuz, ohartu gaitezke ez dela bere buruaz bakarrik solasean ari, irakasle eskolako ikasleek izan ohi duten joera bat bezala aurkezten baitu “*behin bateanekin* hasten den gomendio bat, kronika bat...” kontaktzea. Ildo beretik segituta, kontalariak adierazten digu akatsa ez dela bakarrik ipuina kontatu behar dutela erran eta beste zer edo zer kontaktzea, baizik eta pedagogiaren zamak bultzatuta irakasleak ipuina eraldatzea, bere kalterako. Kasu batzuetan, irakasleek, ipuina berak duen boteretik urruntzea bertzerik ez dute lortzen. Ohiko akats bat, ipuinari ezaugarri berriak gehitzea da. Adibidez, hasiera batean jarrera “desegokiak” dituzten pertsonaiei hasieratik jarrera “egokiak” esleitzea. Beraz, ikusi dezakegu kontatzerako orduan, irakasleen artean, antagonista zuzenago bat erakusteko joera dagoela. Joera honen gibelean intentzio ona badago ere, haurraren kalterako izaten da, ez baitu bidaiak berak ematen digun irakaskuntza jasotzen.

Ez dira kontalariak bakarrik pentsamendu hau agertzen dutenak. Ikerlariak ere haien lanetan aipamen zuzenak egiten dizkiote didaktikarako joera honi; erraten dutenean, kontaketa gehienak, kontalaritza berriaren hastapenetan, haurrentzako antolatuak zirela eta gozamenezkoak ez ziren helburuak baldintzatuta jaio zirela. Gaur egun egoera berdinsuan gaudela diote, helburu horietatik ezin askatu, bereziki euskarazko kontaketei dagokienez (*Behinola*, 2010; Diaz de Gereñu 2012;



Hernandez,2006). Erran daiteke, beraz, konparaketa bat eginez, haur literaturaren idatzizko adierazpideei didaktismoak edota pedagogizazioak egiten dieten eragin negatiboa ahozkoan biderkatu egiten dela (Etxaniz, 1997;Lopez, 2006).

Garcia Arriolak (2017) azaltzen digunez, badirudi, hezkuntza formalean, ipuin kontaketa hizkuntzaren garapenean laguntzeko baliabide izatera mugatu dela. Haur Hezkuntzan, adibidez, arras ohikoa da irakasleak gaiarekin lotua dagoen ipuin bat behin eta berriz errepikatzea. Beste kasu batzuetan, irakaslea klasean dagoen materiala (haurrek etxetik ekarritako liburuak, aurretik prestatu gabekoak) elkarbanatzearekin konformatzen da.

Beraz, hala kontalariak nola adituek diotenak bat egiten du: eskoletan curriculuma osatzeko helburuarekin antolatzen dira nagusiki kontaktak. Gure kontalariak urrunago joan dira, eta eskolaz kanpo antolatzen diren kontaktetz ere solastu dira.

Bi kontalariak azaltzen digute asko direla enkargu bidez eskatzen dituzten kontaktak. Hau da, antolatzaileari lantzea interesatzen zaion gaiaren (genero berdintasuna, arrazakeria...) inguruko saioak. Batak zein besteak, halako enkarguen aurrean antzeko erabakia hartu ohi dute: haien biltegiko gustuko ipuinak moldatu. Hala ere, enkarguetara egokitzea beti ez da erreza izaten eta kontaktak indarra galtzen du bideratuegia dagoenean. Egokiena litzateke, erdigunera ekartzea, adinari dagozkion beldurrak eta interesak lantzen dituen gaiak.

Kontalariak diotenari jarraiki, pentsa daiteke hezkuntza formalean gertatzen den fenomenoaren antzeko zerbait gertatzen dela eskolaz kanpoko jardueretan ere. Hala ere, ezin dugu ahaztu salbuespenak ere badaudela, eta ipuinen inguruan biltzen diren hainbat profesionalak lan handia egiten dutela ipuinaren balioaz ohartu eta hau bermatzeko.

Gure bigarren hipotesiak horrela zioen: “uste dugu ipuinek izaera kolektiboa bultzatzen dutela”, kasu honetan, honen inguruan zuzenean eta zeharka mintzatu dira. Añorgak adibidez, momentu batean gure galderari zuenean erantzuten dio: “Ipuina kolektiboa da, elkartzeaz ari gara, hau da, ipuinak elkartu egiten gaitu. Besterik gabe emozio bat duelako eta indar hori daukalako”. Añorgak azaltzen digu komunikazioaren oinarria (ipuinaren balioa) kolektiboa dela, ipuinak elkartzen gaituelako.

Imazek, berriz, kolektibotasun horren irudia ekarri digu. Hau da erran diguna, ipuina entzuteko elkartzen ziren momentuaz solasean: “Arratsaldero, siestaren ondotik, denak korruan elkartzen ginen, koadrila handia elkartzen ginen, guztiak familiakoak,

30-40 izango ginen guztira, adin guztietakoak.” Honek ipuinen transmisioa kolektiboari zuzendua dagoela erakusten digu, hau da, ipuinak taldean kontaktzen direla.

Ikerlariek ere, haien ikerketen bidez erakusten digute, ipuinen ezaugarri esanguratsuenetako bat bere izaera kolektiboa dela. Gereñuk (2005:32), adibidez, kontalaritzaren definizioa ematen duenean, osagai nagusietako bat jendaurrean kontaktzea dela azaltzen du. Interakzioa funtsezkoa da, eta ikertzaileek une horren garrantzia azpimarratzen dute. Igerabidek, adibidez, dio, kontaktak helbururik badu, taldean egindako ahozko komunikazio estetikoa burutzea dela.

Pello Añorgak irudi kolektiboa osatzen laguntzen digu. Bere iritziz ipuinek identitatea ematen digute, eta identitate hori askotan kolektiboa da, zerbaiten parte sentiarazten gaituelako. Kolektibotasun hori, ipuinak jendearengana iristeko duen gaitasunari ere lotu daitekeela uste dugu, ipuinaren bitartez bidaia komun bat egiten dutelako entzuleek. Bestalde, ipuin onek ez dute adinik, horrek publikoa anitzagoa eta zabalagoa izaten laguntzen du. Horregatik Añorgak azaltzen digunez, ipuina ona denean, “bisioa dauka”, eta ez du adinik; beraz, entzule oro harrapatuko duen sare bat bezalakoa da.

Añorgak ipuinak jendaurrean probatzeak ere zer erran handia duela deritzogu. Berak metafora baten bitartez azaldu digu: “Ipuina arroka bat da, eta kontaktuz jartzen duzu bizitzaren errekan. Hasieran zakarra eta gordina dago, baina finduz eta borobilduz doa; geroz eta borobilago, orduan eta hobeki kantatuko du”. Bi ideiak lotuz (ipuinak jendaurrean kontaktzen dituela eta metafora bera) metaforan ageri den erreka ipuinen inguruan biltzen den jendartearen adibide dela ulertu dezakegu. Metafora honek kontaktak berak dituen osagaiak barnebiltzen ditu eta agerikoa da kontaktak izateko publikoa behar duela eta osagaietako bat jendarte anitz bat dela.

Izaera kolektiboa mugimenduan dagoen izateko modu bat da: izaera hau, momentu jakin batean dauden entzuleekin eta ipuin beraren aurrean egon diren hartzaileekin harremanetan dago. Izaera kolektiboaren alde positiboaz mintzatu zaigu Imaz, ipuinek gure aurretik munduan egon diren eta arazoak izan dituztenen soluzioez hitz egiten digutela dio. Bere ustez, zenbat eta konponbide gehiago eduki arazo baten aurrean, orduan eta hobe jasotzen duenarentzat. Horregatik ipuina arazo eta galdera unibertsalak erantzuten saiatzen den legatu bat bezala ulertzen dugu.

Imazek kontaktaren momentua ekintza transzendente bat dela dio. Entzulea zerbaiten parte sentitzeaz gain, irudi kolektibo bat marrazten da kontaktetan

ahozkotasunaren bitartez. Gaur egun, irudiak duen garrantzia ikusita, interesgarria eta aberasgarria da ahozkotasunak iruditegi kolektiboari eskaintzen ahal diona.

Maiz, gure mundu ikuskera kolektiboa da. Jasotzen dugun informazioaren araberakoa da munduarekiko dugun ikuskeraren eraikuntza, eta ipuinek garrantzia handia dutela aipatzen dute zenbait ikertzailek. Elorzak (2009a:4) dio ipuinak haurrari mundua zentzu zabalean ezagutzen laguntzen diola. Ipuina norbere kultura ezagutu eta mundua ulertzeko ezinbesteko tresna baita (Jimenez, Gomez, Aguado eta Ballesteros, 2001).

Ipuinaren izaera kolektiboa arras lotua dago bere gaitasunari, eta, ipuina kontatzen denean, honen gaitasuna maila sozialean garatzen da (Larringan 1992:505): Ipuingilea (ipuinlaria) transformazio sistemaren erdi-erdian aurkitzen da: jasotzailearen araberako moldaerak egin ditzake, kultura-erreferentzia berriak gauzatzeko (tokikoak, agian); esaerak, eta abar.

Ipuinek batzen gaituztela ikusteko adibide ezin hobe ematen du Padovanen (1999) ikerketak. Ikerketa horretan ondorioztatu zuen ipuin kontaketaekin hastean talde-dinamikan aldaketa handiak antzeman zituela, eta irakasleekin harremanik ez zuten ikasleek harreman estuagoa lortu zutela ipuinaren bidez.

Gure hipotesiaren inguruan kontalariak eta ikerlariak erran dutena jaso eta aztertu ondotik, hipotesia baieztatzen dela erran dezakegu. Kontalaritza ulertzeko, ezinbestean atxiki behar zaio izaera kolektiboa ezaugarri bezala. Beraz, ipuinak identitate kolektibo bat ematen digula erran dezakegu. Hala ere, ezin dugu ahaztu Pello Añorgak dioen bezala ipuina kolektiboak izateaz gain barrura begiratzeko instrumentu ezin hobe dela.

## 5.2 Azken gogoetak

Lanaren puntu honetara iritsita, atzera begiratzea dagokit. Lanaren prozesua luzea izan da, urrian hasi eta ekaina bitarte iraun du. Ezinbestean, prozesuan zehar lanaren martxak erritmo diferenteak eduki ditu.

Lehenengo lana elkarrizketatuak aukeratu eta hauendako galdetegia prestatzea izan zen. Ondotik, kontalariekin harremanetan jarri ginen, eta, zorionez, elkarrizketa egiteko proposamena luzatu genien guztiek baiezkota eman ziguten. Elkarrizketa alderatuz gero, ikusi daiteke haien artean arras diferenteak direla. Galdera beraren aurrean, kontalari bakoitzak hari bati tira zion, eta, hari berdintsutik joanda ere, askotan

ezberdintasuna nabaritzen da, esatekoan baino, esateko moduetan. Eskertzekoa izan da guretzat aniztasun hori, batez ere ikuspegi zabal eta aberatsagoa ematen baitigu. Baina nabarmena da kontalarien arteko harreman faltaren ondorio ere badela.

Elkarrizketak sailkatzea izan zen hurrengo pausoa, eta zailtasunak eduki nituen. Informazio asko genuen (bataz beste, bi orduko bost elkarrizketa), eta graduan ez nuen sekula egin horrenbeste material kontutan hartzea eskatzen zuen lanik. Egoera horretan, bistakoa izaten hasi zen ikerketa lanek zeinen presentzia gutxi duten irakasle eskolan, eta zer zailtasun ditugun ikasleok, orokorrean, halako lan bat kudeatzeko. Probak egin ondotik, erabaki nuen lan honetarako minuterora egitea izango zela hoberena, eta aurre-lanketa horrek hurrengo pausoetan sostengu handia eman zidan. Interesgarria izan zen proba-errorearen bitartez metodoak probatu eta ikerketak eskatzen duen begirada kritikoa lantzen hastea.

Marko teorikoa osatzeko, askotariko ikerketa lanak eta artikulua zientifikoak irakurtzeko beta izan nuen. Esperientzia arras aberatsa izan zen. Ikerlarien jakintzak jasotzea eta ikertzaileen lanak nola saretzen diren ikusteak perspektiba zabaltzen lagundu ninduen, ipuinaren mundua hobeki ulertuz. Orain arte artikulua zientifiko gutxi irakurriak nituen honen inguruan eta egina dagoen lana emankorra iruditu zait. Metafora bat jartzearen, marko teorikoaren atala aztertu nahi dugunaren mapa bat litzateke, kontalariaren hitza, berriz, bertan egon denaren testigantza bat. Normalean bata edo bestearekin lan egitera ohituak gaude, eta bien hartu-emanak lana borobiltzen lagundu dit.

Lan honek, kontaketa duen aberastasunaz oraindik eta gehiago konturatzeko balio izan dit. Interesgarria izan da teoriak eta praktikak bat egiten dutela ikustea, batez ere, agerikoa zenean, kasu batzuetan, kontalaria teoriatik oso urrun ibili zela. Kontaketa haurtzarotik haratago doan esperientzia bat dela ikusi ahal izan dugu, eta bere boterea gozamenetik haratago doala. Erran daiteke ipuinaren mundua oraindik ere ongi ezagutzen ez dudana leku bat dela. Horrek arakatzeko gogoia eta aukerak ematen dizkit.

Lan honen bitartez, beste behin, kontalaritzaren egoera prekarioa dela sumatzen da. Ipuinaren inguruan bizi diren gehienak adin tarte bati (3-6 urte) lotuak daude. Ez hori bakarrik, helduen eta koxkorren kasuan, ipuinak bigarren plano batean geratu dira eta zenbait kasutan ipuinekiko iritziak joera negatiboa du. Ahozkoitasunak gure gizartean lekua badu ere, askotan oharkabean pasatzen da. Ipuinak presentzia duen kasuetan, berriz, nahi baino gehiagotan, ipuinarekin zerikusia ez duten helburuak betetzeko izan ohi da.

Lan honek, dagoen materiala eta jakintza ikustarazteaz gain, ikerketak eduki ditzakeen bide berriak iradokitzen dizkigu. Alde batetik, kontalaritzak sare baten beharra duela uste dugu. Sare horrek ikerketarako eremu bat beharko luke, egina dagoena jasotzen duena eta egiteko dagoenari bide ematen diona. Egin diren ikerketak aberatsak dira eta horrek generazio berriei ikertzen jarraitzeko oinarri on bat bermatzen digu. Ikerketaren hutsunetako bat transmisioan sumatu dugu. Irakasle eskolako ikasle izanik, ipuinekiko dagoen informazioaren eta unibertsitatean jasotzen dugun datuen artean, distantzia handia dagoela uste dut. Helburuetako bat izan beharko luke material honek letren fakultatean eta irakasle eskolan presentzia gehiago edukitzea. Horretarako, ahozkotasanari zuzendutako ikerketak indartzea aukera ona izan daiteke.

Lan honetan Joxemari Karrereren elkarrizketa aztertu ez badugu ere, bere hitzak ekarri nahiko genituzke gogora. Izan ere, Karrerek bertsolaritzaren eta ipuinen komunitateak konparatzen ditu, eta bere ustez argia da hauek eduki duten garapenaren arteko distantzia. Bertsolaritzak zaleen saretze bat lortu du, prestigioa, ikerketarako gogoz dagoen lan talde zabal bat, komunitate indartsu bat osatzea. Kontalaritza, berriz, indibidualki aurrera egin duen komunitate bat da, kohesioa eta elkarlana hanka motz gelditu zaio hein handi batean. Gure ustez, errealitatea aldatzeko momentu ezin hobean gaude, eta, horretarako, ipuinen zale diren pertsonak elkartu, eta ipuinekin zaletzeko programak jarri beharko lirateke martxan. Horretarako irakasle eskolako ikasleak hautagai onak izan daitezke.

Ipuinaren balioa errespetatu eta bermatzeko lan ildoak ere arras interesgarriak iruditzen zaizkigu, eta bilduta dagoen materialak generazio berrien arnasa behar duela uste dugu, belarri berriek transmisioarekin jarraitu dezaten.

Irakasle eskolan ikerketarako erremintak hasieratik aurkeztu eta ikasleak horretan trebatzea ere beharrezkoa ikusten dugu. Ahozkotasanaren inguruan egin daitezkeen ikerketak aurrera eramateko perfil egokia izateaz gain, hezkuntzak, ofizioan lanean dabiltzan pertsonen alderdi ikertzailea bultzatuz gero, ikerketari beste begirada bat gehituko zaiola sinesten baitugu. Uste dugu ikertzaile perfil honek ofizioarekin lotuak dauden beste espezializazioetan ere eskaintzeko asko eduki ahal duela.

Gradu amaierako lan honetan, jasotako testigantzen zati txiki bat bakarrik erabili ahal izan dugu. Horregatik, materia honekin hipotesi berriak sortu eta ikerketa berriak abiatzea proposatzen dugu. Gainera, kontutan izanda bost kontalari hauen esperientzia eta zer nolako presentzia eta eragina duten ahozkotasanaren euskal

komunitatean, uste dugu emaitza emankorrek jasoko liratekeela, eta komunitatea aberastea gure helburu nagusietako bat izan behar da.

## 6. Bibliografia

- A. A. (2008). "Ahozko narrazioaren aldeko agiria. Euskal Herriko Kontalariak elkartearen adierazpena". Sarean: <https://sites.google.com/site/mirentxucg/berriak> azken kontsulta 2020ko ekainaren 2an.
- A. A. (2010). Lau ipuin kontalarirekin solasean. *Behinola* 22, 2010eko azaroa, 7-17.
- A. A. (2013). Itinerarios de formación. 3. monografikoa. *El Aedo*. Sarean: <http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo> azken kontsulta 2020ko ekainaren 2an.
- Amestoy, K. (2012). Zubi gaineko trukaketak (ipaina). *Ahoa Bete hots Jardunaldiak 2012*, 66-67. Andoain: Lanku.
- Añorga, P. (2012). Kontalarien jarrera eta hizkuntz egokitzapena haurrei kontatzerakoan. *Ahoa Bete hots Jardunaldiak 2012*, 43-57. Andoain: Lanku.
- Briot, V. (2005). Être conteuse aujourd'hui. In Chaulet Achour, C. (ed.), *Conte et narration au féminin*, 159-178. Paris: Broché.
- Bruno, P. (2011). La narración oral en España. Una brevísima historia de la profesionalización del oficio de contar. *CLIJ, Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 244, 58-64.
- Bryant, S. C. (1984). *El arte de contar cuentos*. Bartzelona: Hogar del Libro.
- Calame-Griaule, G. (ed.) (1991). *Le renouveau du conte*. Paris: CNRS.
- Colomer, T. (2001). La enseñanza de la literatura como construcción del sentido. *Lectura y vida: Revista latinoamericana de la lectura*. 22, 1-19.
- Dezutter, O. (1996/97). "Redécouvrir le conte par les oreilles et par la bouche". *Enjeux* 39/40, 159-168.
- Díaz de Gereñu, L. (2005). Ahozko kontaketa eta eskola jarduera. *Cuadernos de educación*, 14, 31-42.
- Díaz de Gereñu, L. (2016). *Jendaurreko konta-saioa: gertakari sozio-diskurtsiboa eta testu-genero berezitua*. Bilbo: EHU Doktorego tesia, 19-60.
- Elorza, X. (koord.) (2009). *Solasean eta Jolasean: Ipuinen kontaketa Irakaslearen liburuxka*. HABE-Eusko Jaurlaritza.
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta Gazte Literatura*. Iruñea: Pamiela.
- Fabre, D. eta Lacroix, J. (1974). *La tradition orale du conte occitan*, Paris: PUF.
- Fortún, E. (2008). *El arte de contar cuentos a los niños*. España: Ediciones espuela de plata.

- García-Arriola, E. (2017). Ahozketasunaren balio pragmatikoa ipuin kontaketa. Koldo Amestoy kontalariaren zenbait ipuinen azterketa. *Tantak*, 29, 119-144.
- Garzón, F. (1995). *Teoría y técnica de la narración oral escénica*. Madril: Laura Avilés.
- Hernandez, S. (2006). *Le monde du conte, contribution à une sociologie de l'oralité*. Paris: L'harmattan.
- Igerabide, J. K. (1993). *Bularretik mintzora*. Donostia: Erein.
- Irusta, A. (2004). Ipuingintzaren bidean euskalkiak eta erregistroak urratzen hasi. *2004ko Jardunaldietako Argitalpenak*, 141-167. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Jiménez-Frías, R., Gómez, F., Aguado, T. eta Ballesteros, B. (2001). *Cuéntame: el cuento y la narración en educación infantil y primaria*. Madril: UNED.
- Kvideland, R. (1990). Storytelling in Modern Society. In Rörich & Wienker-Piepho. (ed.). *Storytelling in Contemporary Societies*, 15-21. Tubinga: Gunter Narr.
- Larringan, L. M. (1992). Ipuingintza: Komunikazioa eta praktika linguistikoa. *Euskera XXXVII* (2. aldia), Separata.
- Lopez, M. (2006). *Literaturak umeei begiratu zientean*. Iruñea: Pamiela.
- Padovani, A. (1999). *Contar cuentos: Desde la práctica hacia la teoría*. Argentina: Editorial Paidós.
- Prat, J. J. (2014). Historia. revista el AEDO. Sarean: <https://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/un-diccionario-de-narracion-oral/120-palabra/600-historia> azken kontsulta 2020ko apirilaren 28an.
- Raines, S. C. eta Isbell, R. (2000). *Cómo contar cuentos a los niños: Relatos y actividades para estilar la creatividad e inculcar valores éticos*. Bartzelona: Ediciones Oniro.
- Sanfilippo, M. (2007a). *El renacimiento de la narración oral en Italia y España (1985-2005)*. Madril: Fundación Universitaria Española.
- Sanfilippo, M. (2007b). El narrador oral y su repertorio: tradición y actualidad. *Revista Signa* 16, 73-95.
- Sanfilippo, M. (2007c). Si cunta e s'arriccunta: las fórmulas de apertura y cierre en la narración oral. *Revista de dialectología y tradiciones populares LXII*, 2 (uztaila abendua), 135-163.
- Schneuwly, B. (1996). Vers une didactique du français oral?. *Enjeux* 39, 3-11.
- Zumthor, P. (1991). *Introducción a la poesía oral*, Madril: Taurus.



## 7. Eranskinak

### 1. Eranskina: Galdetegia

#### 1.1 Lehenengo blokea, kontalaria ezagutzen

-Nor zara? /¿Quién eres?

-Nondik zatoz? /¿De dónde eres?

-Zein da zure ama hizkuntza? / ¿Cuál es tu lengua materna?

-Zein hizkuntzetan kontatzen duzu? / ¿En qué idioma sueles contar?

-Nolatan sartu zinen kontalaritzan? / ¿Como empezaste como cuenta cuentos?

-Zenbat urte daramatzazu kontalari? / ¿Cuantos años llevas en el oficio?

-Zein izan dira zure erreferenteak? / ¿Quienes han sido tus referentes en este oficio?

-Zein publikorekin hasi zinen lanean? /¿Con que publico empezaste a trabajar?

-Non, zein esparrutan kontatu izan duzu? / ¿Donde, en que ambiente has solido contar?

#### 1.2 Bigarren blokea, kontalariaren ipuinak eta hauen mamia

-Hasieran nola hasi zinen osatzen zure ipuinen biltegia? /¿Al principio como completaste tu almacén de cuentos?

-Eta urte hauetan zehar?/¿Y durante estos años?

-Zein ezaugarri izan behar ditu ipuin batek kontatua izateko? / ¿Que características debe de tener un cuento para ser contado?

-Zein eskema dauka kontatzeko ona den ipuin batek? /¿Que esquema debe de seguir un buen cuento? (para ser contado)

-Zein atal da ipuin baten garrantzitsuena, fokua gehien jarri behar zaiona?/¿ Que parte del cuento es el más importante, el que el narrador sobre todo tiene que enfocar?

-Zein baliabide linguistiko erabiltzen dituzu kontaketen? /¿Que recursos lingüísticos utilizas en tus narraciones?

-Zein material erabiltzen duzu ipuina laguntzeko?/¿ Utilizas algún material complementario a la hora de contar?

-Zein gairen inguruan eskatu izan dizkizute kontaketak?/¿ Te han solido pedir que contaras, alrededor de algún tema que los oyentes quisieran tratar?( violencia de genero...)

-Ipuinek balore batzuk izan ditzaten saiatzen al zara?/¿ Intentas que los cuentos que cuentas tengan valores o moraleja?

-Gai batzuk tabuak al dira? /¿ Hay temas tabú?

-Tabuak aldatu al dira azken urteetan?/¿ Han cambiado los temas tabú en los últimos años?

-Ipuinen bat denboran birmoldatuz joan al zara?/¿ Hay algún cuento que hayas ido modificando en el tiempo? (por sus connotaciones religiosas, políticas...)

-Ipuin bera helduei eta haurrei kontatu al diezu noizbait?/¿ Has contado el mismo cuento a niños y a adultos?

-Atrezzoak erabiltzen al duzu? Zergak?/¿ Utilizas en tus funciones algún atrezzo?

-Albumekin kontatzen al duzu? Edo kontatu duzu inoiz?/¿ Utilizas el álbum para contar?

### **1.3 Hirugarren blokea, kontalaria eta publikoa**

-Ze ezaugarri behar ditu kontalari batek?/¿ Qué características debe de tener un cuenta cuentos?

-Eta zein ezaugarri kontaketa batek?/ ¿ Y que características una sesión de cuenta cuentos?

-Zertarako balio dute kontaketek zure ustez? /¿ Para qué sirven los cuenta cuentos?

-Zein publiko duzu gustuko?/ ¿ Qué público es tu favorito?

-Publikoa aldatu al da azken urtetan?/ ¿ El público ha cambiado en estos últimos años?

-Helduena zertan aldatu da?/ ¿ En que ha cambiado el público adulto?

-Kontaketa lekuak mugatu dezake?/ ¿El lugar en el que contamos, afecta a la narración?

-Zertan aldatu dira kontaketak gehien?/ ¿En que han cambiado los cuentacuento sobre todo?

-Zein ezaugarri galdu edo ahuldu zaizkio ikusleari? Zergak?/¿Qué características han sido pérdidas o en decadencia cuando hablamos del oyente?

-Gaur egungo entzuleak eta zu hasi zinenekoak ezaugarri berdinak al dituzte?/ ¿Tienen las mismas características los oyentes de ahora en comparación con los oyentes de cuando tu empezaste?

-Irudimena murriztuz joan al da?/ ¿La imaginación ha ido reduciendo?

-Lehen funzionatzen zuten ipuinek orain ere funzionatzen al dute?/ ¿Los cuentos que funcionaban cuando empezaste siguen funcionando?

-Zein teknika erabiltzen dituzu isiltasuna lortzeko?/ ¿Que técnicas utilizas para conseguir el silencio?

-Lehen baino zailagoa al da?/ ¿Es más difícil que antes?

-Kontakteten iraupenak aldatu dituzu?/ ¿Las sesiones duran lo mismo ahora?

-Berdin kontatzen al dituzu erlijioa bezalako gaiak edo jainkoa bezalako pertsonaiak ageri diren ipuinak?/ ¿Cuentas igual las historias con toques religiosos? O con presencia del diablo...

-Zeren falta sumatzen duzu?/ ¿Qué es lo que más echas de menos?

-Zer behar du kontalaritzak, teknologien mundu honetan iraun dezan?/¿Que crees que necesita la narración oral para que siga funcionando en este mundo lleno de tecnología?

## 2. Eranskina: Minuteroa

### i. Minuteroa egilearen arabera

**Joxemari Karrera**

0:00:30

Merkatuaz solasten du, gure burua sailkatzeko beharraz

- 0:01:34 Anekdotak generoa definitzeaz
- 0:02:20 Nongoa + hizkuntza+ ze hizkuntzetan kontatu ( azalpena gaztelaniaz kontatzearen inguruan)
- 0:03:05 Euskara edo gaztelaniaz kontatu : gaztelania kalekoa, euskara hizkuntza artistikoa
- 0:04:38 Frantsesez kontatu zueneko adibide bat (konparaketa egiteko)
- 0:05:03 Euskara gutxi kontrolatzen dutenen adibidea + ondorioa nola egin euskaraz kontatzeko
- 0:05:23 Noiz hasi zen kontatzen (bi bertsio)
- 0:05:37 Askotan galdera horri kontalariek erantzun kultuak adibideak (besteak beste Pello Añorgarena)
- 0:06:41 Ikasketak: antropologian + kilioak (tribu bat) komunitateko jakintsuak kontatzen
